ASMOZ TA JAKITEZ

EUSKO IKASKUNTZA

2005 apirila/abril/avril

Nº 155 zenb.

# www.eusko-ikaskuntza.org: un sitio para todos

## Eusko Ikaskuntzak berritu egin du bere weborria bazkide guztien tresna izan dadin

Desde el pasado mes de marzo, la página web de Eusko Ikaskuntza se ha renovado con el objetivo de ofrecer más amplias y completas utilidades a los socios. La principal innovación respecto a su precedente es que la nueva web dispone de espacios de información, comunicación y reflexión específicos para los órganos de gobierno de la Sociedad, para las Secciones y para todos los socios. De este modo, el sitio reúne los medios necesarios para, en adelante, constituirse en importante herramienta de trabajo y en catalizador de la actividad de Eusko Ikaskuntza.

Con un diseño y presentación claros y sintéticos, la www.eusko-ikaskuntza.org se estructura en diez grandes apartados: *Quiénes somos, Novedades y Agenda, Proyectos, Becas, Congresos, Cursos y Jornadas, Publicaciones, Fondo Documental, Premios, Euskoshop.*

Asimismo cuenta con una *Zona Privada* y otra de *Comunidad*, reservadas ambas para uso interno de los socios. En dichos espacios, podrán ir colgándose convocatorias, actas, documentos de trabajo o habilitarse foros para la discusión.



**Inscripciones y adquisiciones**

Aspecto a subrayar es que desde la web se tiene acceso directo a las bases de datos y a la totalidad de los contenidos generados por las Fundaciones Euskomedia y Asmoz.

Otra ventaja de la nueva web es la posibilidad de que cualquier persona, desde su propio domicilio, pueda inscribirse en Jornadas y Cursos organizados por Eusko Ikaskuntza haciendo uso del sistema de pago directo, así como adquirir sus productos y servicios (libros, cd-roms, heráldica y genealogía, artesanías, etc.) mediante la ventana comercial que presta Euskoshop.

La web de Eusko Ikaskuntza se presenta en versión cuatrilingüe (euskera, castellano, francés e inglés) y cumple con todas las normativas de accesibilidad para los usuarios discapacitados.

### Altxor digitala

1996 urtean abiarazi zuen Eusko Ikaskuntzak bere lehen weborria, teknologia berriak lan eta berrikuntza tresna gisa hartzeko apustua egiten zuen estrategia baten barrenean. Orduda-nik, weboria gero eta eduki kopuru handiagoa eskaintzen ari da zientzia, irakaskuntza eta zabalkundearen eremuan, hala produkzio propioari nola kanpokoari dagokienez, eta sarbide librekoa da euskal zientzia eta kulturaz arduratzen diren guztientzat. Xabier Retegi Eusko Ikaskuntzako Lehendakariaren hitzetan, weborria "euskarri digitaleko altxor handia da".

### Plurilingue

Un nouveau site web d'Eusko Ikaskuntza offre, en quatre langues (euskera, français, espagnol et anglais), toutes les informations sur la nature et l'activité de la Société. Sa principale nouveauté repose sur la création d'une *Zone Privée* et une autre de *Communication* réservées aux membres, Sections et organes de gouvernement. Il pourra servir, de cette façon, d'outil efficace d'information, de communication et de réflexion.

# Batzorde Akademikoak 2005erako aurrekontuak onartu zituen

Apirilaren 18an, Baionan, 2005 ekitaldirako Gastu Aurrekontuak onartu zituen Eusko Ikaskuntzako Batzorde Akademikoak: 3.860.451 euro guztira, hau da, 2004rako aurreikusitakoa baino % 9 gehiago. Atalak kontuan hartzen baditugu (ikus ondoko irudia), inbertsiorik handiena Diziplina anitzeko Plan Bereziek eta XVI. Kongresuak beretzen dute, eta horien ondoren Kudeaketa Organo Orokorrei, Zientzia Sailei eta Bekei dagozkienak datoz.

Bilera horretan, Jean-Claude Larronde Eusko Ikaskuntza Iparraldeko Lehendakariak aurreko ekitaldian buruturiko jardueraren balantzea egin eta berehalako aurreikuspenak aurkeztu zituen. Era berean, azaroan egitekoa den Eusko Ikaskuntzaren XVI. Kongresua eta urteko proiektu nagusiak gogoeta gai gertatu ziren.

**Sailei buruz**

Bestalde, Sail Zientifikoak berriro definitzearren Saileko Lehendakarien Batzordeak egindako lehen proposamena jaso zuen Batzorde Akademikoak. Bertan, Sailen existentzia, eginkizuna eta funtzioak aztertzen dira, bai eta Eusko Ikaskuntzaren Plan Estrategikoarekin ados datorren etorkizuneko finantzatzea ere. Batzorde Eragileak hartarako izendatu batzorde delegatu bat lantzen ari den beste dokumentu bat gaineratuko zaio lehen aipatuari, eta hortik irtengo da Sailak birdefinitzeko azken proposamena.

Batzordeak, halaber, 2005eko Ikerketarako Laguntzen azken zerrenda onartu zuen (ikus 2. orria). Era berean, Folklore eta Musika Sailen lehendakaritza aukeratzeko prozesua zabaldu zen, eta Komunikabideak Sailari zegokion aldia luzatu zen (denak, ekainaren 20a arte).




**A Baiona**

La réunion de la Commission Académique a communiqué les activités en cours et celles qui sont prévues par Eusko Ikaskuntza d'Iparralde.

## Udalerriekin

*Este mes han culminado tres realizaciones, de distinto signo, emprendidas por medio de los Convenios con los Ayuntamientos de Treviño, Lekeitio y Mallabia.*

### Treviño

El 3 de marzo en Vitoria-Gasteiz se presentó el libro *Etnografía del Enclave de Treviño, I*, del que son autores Antxon Aguirre Sorondo, Isidro Sáenz de Urturi, Luis S. Garamendi, José A. González Salazar y Juan J. Galdos.

La investigación, desarrollada mediante el convenio de colaboración entre Eusko Ikaskuntza y los Ayuntamientos treviñenses, se ha divido en dos partes. En esta primera se analizan detalladamente las fiestas, la religiosidad popular, los cuentos y leyendas, los oficios, la agricultura tradicional, y la pesca fluvial en el Condado. La segunda parte se encuentra actualmente en proceso de elaboración.



### Digitalizazioak

Mallabia eta Lekeitioko Udalekiko lankidetza hitzarmenen ondorioz, Euskomedia Fundazioak bi argazki artxiboren digitalizazioari ekin dio. Mallabiaren kasuan, udalerriko biztanleek lagaturiko 230 argazkiak, antzinakoak gehienbat, inbentariatu, digitalizatu eta katalogatu dira. Beste kasuetan bezala, bereizmen handiko kopia digitalak egin dira, bai eta bereizmen gutxiagoko beste batzuk ere aplikazio informatikoan datu basearekin batera sartzeko xedearekin. Lekeition, katalogaturiko 350 irudiak hauskortasun handiko euskarritan jaso ziren. Horien inbentarioa egin ondoren, material guztia garbitu eta finkatzeari ekin zaio, hondatuenei kontu handiago eginez.



## Livres d'Iparralde

*Bazko Astelehen orotan Saran egin ohi den Idazleen Biltzarrean, Iparraldeko gaien inguruko lau liburu aurkeztu zituen Eusko Ikaskuntzak.*

### Guerra de Argelia

El libro *Aljeriako Gerla eta Euskal Herria (1954-1962) / La Guerre d'Algérie et le Pays Basque (1954-1962)* recopila las ponencias presentadas a las Jornadas que se celebraron en Kanbo en junio de 2003 con motivo del cuadragésimo aniversario del fin de la Guerra de Argelia. Especialistas de ambos lados del Bidasoa analizan las repercusiones que tuvo la contienda colonial en el País Vasco. (Col. Lankidetzan, 30)



### Saraz

*Sara, Etxeak eta Deiturak lau mendez (XVI-XIX)* da Xabier Elosegiren liburuaren izenburua, Eusko Ikaskuntzak Sarako Udalarekin batera argitaratu dena. Lan hori Sarako Udal Artxiboetan egindako ikerketa zehatz eta osoaren emaitza da (8.654 jaiotza akta, 1.555 ezkontza akta, 4.925 heriotza akta), bai eta garrantzi handiko hainbat dokumentu aztertzearen ondorioa ere, antzinako katastroa barne. (Lankidetzan Bilduma, 31)



### Garazi

Garaziko haurren artean Jakes Aurnaguek 1982an eta Maia Duguinek 2002an egindako ikerketa esperientziak bildu eta konparatzen ditu lan honek. Donibane Garazi eta Uharte-Garaziko Udalekin lankidetzan argitaratu den *Euskaldun Orok Altxa Burua 1982, 2002* izenburuko lana erakundeen, hezitzaileen, ikertzaileen eta euskararen egoeraz arduratzen diren guztien zerbitzuan jarritako tresna baliotsua da. (Lankidetzan Bilduma, 33)



### Pierre Haristoy

A l'occasion du centenaire de la mort de Piarres Haristoy, Eusko Ikaskuntza a célébré en 2001 une Journée sur cette figure clé de l'historiographie du XIXème siècle. On publie maintenant, en collaboration avec la Mairie d'Ayherre, les interventions qui abordent des aspects concernant aussi bien la production historiographique d'Haristoy que le contexte historique dans lequel s'est déroulée sa vie. (Col. LankIdetzan, 32)



## Bai euskarari

Donostiako Kursaalean, martxoaren 4an, egindako ekitaldi batean, Kontseiluak ematen duen Bai Euskarari ziurtagiria jaso zuen Eusko Ikaskuntzak. Gizarte eragileek euskararen normalizazioaren alde egindako ahaleginak saritzen dituen ikurra da ziurtagiri hori. Eusko Ikaskuntzaren kasuan, akreditazio hori "Guk zerbitzua euskaraz" mailakoa da, zerbitzuak euskaraz eskaintzeagatik emana, alegia. Argazkian, erakunde guztien ordezkariak ziurtagiriak banatzeko ekitaldiaren amaieran.



## Sobre El Quijote

El 16 de marzo en la Universidad de Deusto en Bilbao, y los días 21 y 22 del mismo mes en la Facultad de Filología, Geografía e Historia de la UPV/EHU en Vitoria-Gasteiz se desarrollaron sendas Jornadas en torno al Quijote, con motivo del IV centenario de la primera edición de la obra de Miguel de Cervantes. En la Jornada de Bilbao intervinieron los profesores Elena Artaza, Santiago Pérez Isasi, José A. Ascunce, Mª Luz Suárez e Ignacio Arellano; mientras que en Vitoria-Gasteiz conferenciaron Javier Gómez Montero, de la Universidad de Kiel (Alemania), la novelista e investigadora del CSIC Paloma Díaz-Mas y Luis García Jambrina, de la Universidad de Salamanca.

## Ikerketarako laguntzak

Saileko Lehendakariek proposaturik, 2005eko ekitaldirako bazkideei eman beharreko Ikerketarako Laguntzak onartu zituen Eusko Ikaskuntzako Batzorde Akademikoak. Aurten, gure Elkarteak 52.400 euro inguru eskaintzen ditu kontzeptu hori dela eta (2004ko ekitaldiarekiko gehikuntzaren % 6,5 inguru).

Onarturiko proiektuen bolumenari dagokionez, Historia-Geografia eta Antropologia sailak dira eraginkorrenak (bien artean ia guztiaren herena osatzen dute), eta horien ondoren datoz: Hizkuntza eta Literatura (% 13,79) eta Arte Plastiko eta Monumentalak (onarturiko proiektuen % 10,34).

## Bekak Araban

Le résultat de deux bourses convoquées dans le territoire historique d'Alava, ayant pour objet deux autres recherches de caractère historique, a été rendu publique.

Enrique Uriarte Gonzalo-Bilbao es el encargado de la investigación sobre *Historia oral de Alava (1936-1940)*, al habérsele concedido la beca convocada por la Vicepresidencia por Alava de Eusko Ikaskuntza.

Por su parte, David Conejo Conde, ha obtenido la beca convocada juntamente con el Ayuntamiento de Alegría-Dulantzi con el proyecto *Génesis y evolución histórica de la villa de Alegría-Dulantzi*.

## Consejo de Excelencia Social

Gizarte Ospe Kontseilua

Urrian bilduko da eta hurrengo Diziplina anitzeko Plan Bereziak proposatuko ditu.

El jueves 17 de marzo en Bilbao tuvo lugar la primera reunión anual del Consejo de Excelencia Social de Eusko Ikaskuntza, órgano que tiene por misión asesorar a la Institución sobre los proyectos de interés social y estratégico de cara al futuro de la sociedad vasca. En la cita, los miembros del Consejo analizaron ocho propuestas que podrían ser objeto de Planes Estratégicos Pluridisciplinares. Dado el interés y el calado de las mismas, se juzgó conveniente que se abra un período de reflexión.

Será en la próxima reunión del Consejo, prevista para el mes de octubre, cuando se determinen los próximos temas para PEPs, los cuales, una vez aprobados por los órganos de gobierno de la Sociedad, ocuparán una parte importante de los esfuerzos de Eusko Ikaskuntza en los próximos años.



## Bolsa de trabajo

La Fundación Euskomedia de Eusko Ikaskuntza precisa documentalistas para desarrollar su trabajo en su sede de Usurbil. Los candidatos deben cumplir los siguientes requisitos:

- Licenciado/a en Documentación.
- Dominio de las lenguas oficiales de la CAV.
- Acreditar experiencia en organización y análisis de documentación y catalogación.
- Acreditar experiencia en lenguajes de etiquetado: XML, XSLT, HTML.

Asimismo, Euskomedia ha habilitado una Bolsa de Trabajo a la que pueden enviar sus currículos las personas interesadas.

Todas las referencias a:

Euskomedia Fundazioa.
Asteasuain, 14 (Txikierdi).
20170 Usurbil.
euskomedia@euskomedia.org.

# Hiru beka bazkideentzat

*Mediante convenios con dos Ayuntamientos vascos y con el Institut d'Estudis Catalans, se convocan tres becas para socios investigadores.*

## Arrastaria-Amurrio

**Hasta el 6 de mayo*

Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Amurrio ofrecen una beca por un importe bruto de dos mil euros para licenciados en Historia, o personas con experiencia fehaciente, al objeto de localizar la documentación del antiguo Ayuntamiento de Arrastaria, al margen de la que pueda encontrarse depositada en la actualidad en la Junta Administrativa de Arrastaria y en el Archivo Municipal de Amurrio. Interesa particularmente conocer el paradero de los documentos mencionados por Félix Murga en el número 5 de la revista *Aztarna.*

La beca tiene una duración de cuatro meses. Los impresos se pueden descargar en la web de Eusko Ikaskuntza o solicitarse en las oficinas antes del 6 de mayo, fecha en que expira el plazo de admisión.

## Pintor Aramburu

**Beca para Tolosa*

La vida y obra del pintor Antonino Aramburu es el tema de la beca que conceden Eusko Ikaskuntza y el Ayuntamiento de Tolosa. Los candidatos deben ser licenciados en Historia del Arte y/o demostrar experiencia relacionada con el trabajo. La beca tiene una duración de ocho meses y su importe bruto es de 1.800 euros. El plazo de admisión termina el 29 de abril. Información en la web de Eusko Ikaskuntza.

## Katalunia

**Apirilak 30ean amaitzen da*

Eusko Ikaskuntzak eta Institut d'Estudis Catalans erakundeak urtero eman ohi dituzten ikerketa bekak direla eta, hilabete honetan amaitzen da hautagaiak onartzeko epea. Beka horiek hala euskal kulturaren nola katalan kulturaren alderdi zehatzen batez arduraturiko ikertzaile gazteei zuzentzen zaizkie. Eusko Ikaskuntzak deituriko bekaren kopurua 3.600 euro da, eta katalandun eskualderen batean egitekoa den hiru hilabeteko egonaldiko gastuak ordaintzeko dira.

# 4 nuevos cursos

**De abril a junio*

La Fundación Asmoz ha ampliado su oferta docente con cuatro nuevos cursos que se imparten esta primavera: uno por Internet y tres presenciales.

En colaboración con Bilbao Metrópoli 30, el Curso sobre la Gestión Estratégica de Ciudades comienza en el presente mes de abril y se extenderá hasta junio, con 60 horas lectivas.

Los cursos presenciales, de treinta horas cada uno, versarán sobre sobre Suelos Contaminados (organizado con la Sociedad Pública de Gestión Ambiental IHOBE), sobre Energías Renovables (con el respaldo del Ente Vasco de la Energía) y sobre la Agenda 21. Los dos últimos citados comienzan en mayo. Para mayor información e inscripciones:

www.asmoz.org.

# Kongresuari buruzko berriak

**Azaroak 29; abenduak 1-2*

Eusko Ikaskuntzaren XVI. Kongresua azaroaren 29ko goizean abiatuko da Bilboko Euskalduna Jauregian, "GARAPEN IRAUNKORRA - IT. etorkizuna" izenburuarekin. Hasiera egunean, duela urtebete baino lehenagotik Garapen Iraunkorrari buruzko Diziplina anitzeko Plan Bereziko Lan Taldeak lantzen ari diren sei lan arloetako edukiei ekingo zaie. Hau da, Lurralde eta bere Baliabideen Antolamendua eta Kudeaketa, Osasuna eta Ongizatea, Enpresa Dinamismoa, Ekonomia eta Fiskalitatea, Garraioak eta Energia. Sei taldeen lanen aurrerabideari buruzko txostenak aurkezteaz gainera, horietako bakoitzean aditudak diren pertsonek ere beren txostenak azalduko dituzte. Kongresuko hiru jardunaldien behin betiko egitaraua apirilean zehaztuko du Batzorde Zientifikoak.

# Premio EI-CL

**Hasta el 30 de abril*

Este mes termina el plazo de recepción de candidatos al XI Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral al curriculum vitae más destacado, al que pueden optar investigadores, científicos y personalidades de la cultura en activo que operan en el campo de las Humanidades, Cultura, Artes y Ciencias Sociales, siempre que desarrollen su actividad investigadora en la Comunidad Autónoma Vasca, Comunidad Foral de Navarra o en cualquiera de los tres territorios del País Vasco Continental.

La obra global de la persona premiada deberá haber contribuido de manera efectiva al desarrollo cultural de Vasconia.

# Euskal Artisautza

**CDa aurkeztea*

Maiatzaren lehenean, Errenterian, Euskal Herriko XXVII. Artisautza Azokaren kariaz, *Euskonews&Media* aldizkariak hamabostero argitara emandako *Euskal Artisautza-Artesanía Vasca* atalaren 66 artisauren lanak biltzen dituen formatu digitaleko edizio bat aurkeztuko da. Ekitaldi horretan Carmelo Urdangarin ekonomialariak parte hartuko du *Artisautzaren erronkak: artisauaren jarduera etorkizunari begira* izenburuko hitzaldiarekin.

# Udaberri kulturala

*Le calendrier d'avril et de mai est plein de convocations de forums pour la réflexion et la divulgation sur les sujets les plus variés.*

## Euskal Artxiboak

**Bilbo: apirilak 29*

Apirilaren 29an, Bilboko Foru Agiritegian, *1987-2005. Gaur egungo Historiari buruzko Dokumentazio Zentroak eta Artxibo Historikoak: Euskadiko Agiritegi Nazionala* izenburuko jardunaldia antolatuko du Historia-Geografia Sailak. Topaketa horrek hainbat helburu ditu: dokumentazio zentroak, gaur egungo historiari buruzko artxiboak eta Euskadiko Agiritegi Historiko Nazionala hobeto ezagutzea; IX. Kongresuaren emaitzak eguneratzea; Euskal Herriko artxibo jardueraren diagnostikoa, eta, egia historikoa ezagutuko bada, dokumentaziora iristeko ahalmena defendatzea. (Informazio gehiago 4. orrian)

## Etxahun Barkoxe

**Hommage en Iparralde*

Le 7 mai, à Barkoxe-Barcus, Eusko Ikaskuntza d'Iparralde célébrera une journée en hommage au poète romantique Pierre Topet-Etchahun (1786-1862).

La cérémonie au cours de laquelle seront combinées les interventions à la charge de spécialistes avec les débats et les "refrains" (eztabaida eta Etxahumen kantoreak), aura lieu à la Mairie.

Interviendront Jean Haritschelhar, Prix Manuel Lekuona d'Eusko Ikaskuntza 2005, Aurelia Arcocha-Scarcia, de l'Université de Bordeaux, et Jean Louis Davant, académicien d'Euskaltzaindia.

## Discapacidad y Dependencia

**Programa*

El 6 de mayo en Bilbao se celebra una nueva edición de las Jornadas Salud y Sociedad, organizadas por la Sección de Ciencias de la Salud de Eusko Ikaskuntza, que en esta ocasión tratarán sobre Discapacidad y Dependencia. Las ponencias correrán a cargo de Gregorio Rodríguez Cabrero, de la Universidad de Alcalá de Henares, y de Julio Pérez Díaz, de la Universidad Autónoma de Barcelona. Habrá tres mesas redondas en torno a los siguientes temas: *Recursos públicos y privados destinados a la población dependiente; Abordaje de la discapacidad y la dependencia; Políticas sobre discapacidad y dependencia*. Asimismo se leerán diversas comunicaciones.

## Euskal Herria Mugaz Gandi

**4, 5, 6 mai*

Du 4 au 6 mai, dans les localités de Vitoria-Gasteiz et Artea, se déroulera un séminaire le *IIème Séminaire International Euskal Herria Mugaz Gandi - Recherches récentes sur la présence basco-navarraise dans le monde.* Ce Séminaire prétend être un forum ouvert et multidisciplinaire sur la présence basco-navarraise dans le monde depuis le XVème jusqu'au XXIème siècle. En même temps, durant tout le mois de mai sur le site d'Internet d'EuskoSare il y aura un séminaire virtuel auquel tous les chercheurs intéressés pourront participer.

## Educación y Deporte

**26-27 de mayo*

En Donostia se reunirán especialistas, estudiosos y profesionales para tratar el tema de la educación y el deporte, con motivo de celebrarse el Año Internacional del Deporte y de la Educación Física.

## Einstein Jardunaldia

**Donostia: maiatzak 31*

2005 urtea Fisikaren Nazioarteko Urtea izendatu dute aurten ospatzen baita Albert Einsteinen *Fisikaren Analak* obra agertu zeneko mendeurrena. Eusko Ikaskuntzak bat egiten du efemeride horrekin maiatzaren 31, *Einstein Jardunaldia* eratuz. Donostian. Bertan, Pedro Miguel Etxenike eta Antonio Moreno zientzialariek hartuko dute esku.

# Seminario en Oxford

**Lenguas en la UE*

Organizado por Eusko Ikaskuntza, los días 24 y 25 de mayo en el St Antony's College de Oxford (European Studies Centre), bajo la dirección de Xabier Arzoz, Profesor Visitante Vasco en dicha institución académica, tendrá lugar un Seminario Internacional con el título *El respeto de la diversidad lingüística en la Unión Europea: ¿avance o parálisis con la Constitución Europea?.*

El objetivo del seminario es explorar la relación entre los ideales de "Unidad en la diversidad" y el compromiso de la Unión Europea en la protección de la diversidad lingüística, en el contexto tanto de los actuales Tratados como, especialmente, de las innovaciones introducidas por la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión (actualmente parte de la Constitución Europea).

A Oxford

Le Séminaire traitera de la diversité linguistique dans l'Union Européenne.

ASMOZ TA JAKITEZ
EUSKO IKASKUNTZA

# Zientzi Historikoen Agiritegiak / Centros de Documentación y Archivos para la Historia



Joseba Agirreazkuenaga

*Coordinador de la Jornada*

Historia sailak Nafarroako Berako herrian egin zuen bileran Gaur eguneko historiazko agiritegiak indartu behar genituela eta, Jardunaldia antolatzea erabaki genuen. Eusko Ikaskuntzak 1979an J.C. Jimenez de Aberasturiren eraginez sortu zuen Frankismo eta trantsizioari buruzko agiritegia. Ondoren, jatorrizko ekimena, ahozko berrien sorburuen bidez eta nortasun handiko pertsonen artxibo pribatuz, aberastu egin zen Bestalde, 1987an Artxibo eta bibliotekei buruzko Kongresua egin zen. Ikerlariok agiritegietan eta artxiboetan egoten gara geure ikerketak burutzeko eta premiazkoa denean, agiritegi berriak sortzen ditugu. Zorionez, ugaritu egin dira. Baina guztiak ezin izan ditugu deitu oraingoan behintzat apirilaren 29rako antolatu dugun Jardunaldirako. Horrez gainera hogeitabost urte igaro ondoren, badirudi Artxibo historiko nazionala sortzeko asmoa egituratu dela Euskal Erkidego Autonomoan.

Ikerlarion premien ikuspegitik eraturiko Jardunaldia dugu. Ikerlarion kezkak eta egitasmoak azaltzeko. Beraz, Jardunaldiaren helburu nagusia zera da: Artxibo eta agiritegien proiektuak ezagutu, eztabaidatu eta zabaldu.

Bestalde, azken 60 urteotan, Euskal Herriak sakon sakoneko aldakuntza ezagutu du. Eta oraindik ez daukagu argi eta garbi antolaturik, nor edo nortzuk arduratu behar ote diren garaiko agiri eta bestelako testigantzak gorde,sailkatu eta zabaltzeko, geure memoria demokratikoaren harian. Jardunaldi honetan, artxibo eta agiritegien lanaren garrantzia azpimarratzen dugu eta bestalde gutxi ikusten den zeregin isilaren etekinak erakutsi.

Administrazio publikoak halabeharrez gorde behar ditu zenbait agiri baina bestelako elkarteentzat ere aukerak zabaldu behar ditu, agiriak gordetzeko sistema eraginkorra asmatuz. Artxiboek bestalde, gordetzen dituzten agirien berri zabaltzeko ahalegina egin behar dute, bertara ikerlariak erakartzeko. Azken batean, agirietan oinarritu gabeko kontakizuna, asmakizun ederra izan daiteke, baina zientzi historikoak eta egiaren ezagutzak halabeharrez agirien bidez, oinarrituriko jakintza eskatzen dute.

* * *

La Sección de Historia decidió en su reunión ordinaria de Bera el pasado año, la organización de una Jornada sobre centros de documentación de historia contemporánea y la política de archivos. A partir de 1979, por impulso de J. C. Jimenez de Aberasturi, Eusko Ikaskuntza organizó un centro documental de historia contemporánea, desde la guerra civil de 1936 hasta la transición. Los archivos y bibliotecas fueron en 1987 el tema del X Congreso de Estudios Vascos. Es tiempo para la reflexión y la evaluación. Mas aún, cuando en el horizonte, después de 25 años de autogobierno, se perfila el proyecto del Archivo Histórico Nacional de Euskadi.

Esta Jornada está organizada desde la perspectiva de los usuarios e investigadores. Necesitamos canales fluidos de comunicación sobre los contenidos de los archivos, pero además, parece urgente el fortalecimiento de un Centro de documentación sobre la oposición a la dictadura de Franco y la transición, como primer elemento para la recuperación de la memoria democrática. El desarrollo de la ciencia histórica y la construcción de los discursos históricos no se realiza sobre la invención narrativa, sino sobre sólidos fundamentos documentales transferibles y accesibles a los diversos investigadores. El estatus científico de la historia requiere de buenas infraestructuras informativas. La sociedad de la comunicación sin archivos y documentos tiene el peligro de convertirse en una sociedad de la tautología y de la propaganda.

La amnesia del pasado, es la antesala de la sociedad de la ignorancia en que los humanos se verán incapacitados para la reflexión crítica sobre el futuro inmediato y para su supervivencia.

> « La science historique a besoin de bonnes infrastructures informatives »

## LIBURUAK

**Tolosaldea bere testamentuetan / Tolosaldea en sus testamentos (1760-1860)**

MURO ARRIET, Koro
Tolosa: Lizardi Kultur Elkartea, 2004




Koro Muro ha realizado un exahustivo estudio documental para contarnos cómo se vivía la muerte en la sociedad tradicional de Tolosaldea, fijando su ámbito temporal entre 1760 y 1860. Para ello, la autora desmenuza hasta en sus menores detalles los aspectos religiosos, sociológicos, económicos y culturales que rodeaban a la defunción de un miembro de la comunidad, y ofrece ejemplos y datos concretos que ilustran sus conclusiones. En edición bilingüe y con atractiva presentación, el libro es, en la forma, toda una lección de síntesis y, en el fondo, una fría y delicada demostración de que la vida rara vez termina con la muerte... al menos para los deudos del interfecto.

**Dultzaina Gipuzkoan. 1950. hamarkada arte**

BELTRAN ARGIÑENA, Juan Mari
Oiartzun: Herri Musikaren Txokoa, 2004




Gipuzkoako dultzainari buruzko informazio zabal eta askotarikoa biltzea da liburu honen helburua, dokumentazio hutsune handia dagoen garai bati dagokionez (XIX. mendearen amaieratik XX.aren lehen erdialdera arte). Aldez aurretik beste ikertzaileek egindako lanak biltzeaz gainera, buruz buru dultzainero zaharrenekin edo horien inguruko jendearekin egindako landa ikerlanetik harturiko datuak ageri dira liburuki honetan.Orobat, liburuak partitura katalogo bat dakar.
Liburu honekin Herri Musika Bilduma abiatu da, Oiartzungo Herri Musikaren Txokoa Herri Musikaren Dokumentazio Zentroak sustaturiko bilduma.

## Agenda

**Apirila / Abril / Avril**

- 2: Senpere. Asamblea General de Eusko Ikaskuntza Iparralde
- 8: Plazo para becas Idiazabal y Otxandio
- 15: Beca Academia Cervantina Española
- 20: Gasteiz. *Elkarrizketa nobelari buruz.* Lourdes Oñederra
- 29: Bilbao. Jornada Centros de documentación de Historia Contemporánea y Archivos Históricos
- 29: Admisión para la Beca sobre el pintor Antonino Aramburu
- 30: Premio Eusko Ikaskuntza-Caja Laboral
- 30: Beca Eusko Ikaskuntza-Institut d'Estudis Catalans

**Maiatza / Mayo / Mai**

- 1: Errenteria. Euskal Artisautza
- 1-31: Internet. Seminario virtual Euskal Herria Mugaz Gandi
- 4-6: Gasteiz, Artea. Seminario Internacional Euskal Herria Mugaz Gandi
- 4: Gasteiz. *Belarraren bisturi zorrotza.* Arkaitz Cano
- 6: Bilbao. VI Jornadas Salud y Sociedad
- 6: Beca Investigación para el Ayuntamiento de Amurrio
- 11: Gasteiz. *Literatura itzala da.* Iban Zaldua
- 20: Baiona. J.B. Coyos. Politique linguistique en faveur du basque et de l'occitan de Gascogne
- 21: Baigorry. Entrega del Premio Manuel de Lekuona a Jean Haritschelhar
- 24-25: Oxford. Seminario del Profesor Visitante
- 26-27: Bilbao. Jornadas sobre Educación y Deporte
- 31: Donostia. Jornada Einstein

Argitaratzailea: Eusko Ikaskuntza. Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Zuzendaria: Josemari Velez de Mendizabal. - L.G.: SS-1056/92. ISSN 1133-9861. Inprimategia: Juaristi. Itziar
Harpidetzak: Asmoz ta jakitez etxean jaso nahi baldin baduzu, idatzi edo dei egin ezazu helbide hauetara:
Eusko Ikaskuntzako Bulego Nagusiak: Miramar Jauregia, Miraconcha, 48. 20007 DONOSTIA. Tel. 943-310855. Fax 943-213956. E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org. Arabako Bulegoa: San Antonio, 41. 01005 GASTEIZ. Tel. 945-231552. Fax 945-148752. E-mail: gasteiz@eusko-ikaskuntza.org. Bizkaiko Bulegoa: María Díaz de Haro, 11-1. 48013 BILBAO. Tel. 94-4425287. Fax 94-4414650. E-mail: bilbo@eusko-ikaskuntza.org. Nafarroako Bulegoa: Pl. del Castillo, 43 bis, 3. D. 31001 IRUÑEA. Tel. 948-222105. Fax 948-211737. E-mail: iruna@eusko-ikaskuntza.org. Iparraldeko Bulegoa: 51 quai Jauréguiberry. 64100 BAIONA. Tel. 559598290. Fax 559461844. E-mail: eusko-ikaskuntza1@wanadoo.fr